



## ‘Xiberutikan Mendebaldera’ kantak jarriko dio doinua 24. KORRIKARI

*Ane Elordi Korrika arduradunak eta Pello Reparaz kantaren egileak eta Maixux Zugarramurdik abestia eta bideoklipa aurkeztu dituzte Agoizko (Nafarroa Garaia) Kultur Etxean*

Ane Elordi Korrika arduradunak eta Pello Reparaz aurtengo kantaren egileak 24. Korrikari doinua jarriko dion abestia aurkeztu dute, ‘Xiberutikan mendebaldera’ izenburupean, Agoizko Kultur Etxean. Horrez gain, bideoklipa ere publiko egin dute.

Pello Reparazek sortu ditu kantaren musika zein letrak, eta bideokliparen zuzendaritza-lanaz ere arduratu da. Gaurko emaitza musikala lortzeko, Reparazekin batera, Maixux Zugarramurdi eta Erramun Martikorena abeslariak hartu dute parte. Bideoklipari dagokionez, nabarmentzekoa da plano-sekuentzian grabatuta dagoela.

Ane Elordik gidatu du ekitaldia, eta zinez eskertu du Reparazen ahalegina: “Eskerrik asko Korrikarako kanta zoragarri hau ekoizteagatik eta, are gehiago, musikatik euskarari eta euskal kulturari egiten diezun ekarpenagatik”, esan du.

Aurten, lehenengo aldiz, AEK osoak prozesu demokratiko baten bitartez aukeratu du nori egin kantaren enkargua, Elordik adierazi

#### ARABA

Arana kalea, 30  
01002 GASTEIZ  
946 464 000  
araba@korrika.eus

#### BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a  
48005 BILBO  
946 464 000  
bizkaia@korrika.eus

#### GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea  
20001 DONOSTIA  
946 464 000  
gipuzkoa@korrika.eus

#### IPARRALDEA

Marengo karrika, 22  
64100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
iparraldea@korrika.eus

#### NAFARROA

Errekoleta 16, behea  
31001 IRUÑEA  
946 464 000  
nafarroa@korrika.eus



duen moduan: “Aurrenekoz, AEKide guztion artean erabaki dugu noren eskutan jarri Korrikaren kanta”, azaldu du.

Ondoren, Reparazek hartu du hitza eta Korrikaren abestia sinatzea bere ibilbide artistikoko “erantzukizun eta poz handienetako bat dela” aitortu du hunkituta. “Ez da enkargu hutsa: kantaren bidez euskarak eta Korrikak niri eman didatenaren zati bat itzultzea da”.

### **Euskara gara**

24. Korrikaren leloaren “pisu handiaz” hitz egin du: “ez gara bakarrik hizkuntzaz ari, bizitzeko, elkar zaintzeko eta etorkizun duinago bat elkarrekin irudikatzen modu bati buruz ari gara”, adierazi du kantaren egileak.

Kantari mugimenduan dagoen komunitate baten sonoritatea ematen ahalegindu da, “ez ereserki zurrun” batena. Entzuten duenak koru honen parte sentitu dezan nahi izan duela aipatu du.

Abesti honek jendarteari euskarara hurbiltzeko gonbita egiten dio. Bukatzeko hauxe aipatu du Reparazek kantaren helburuaz: “AEKren euskaltegietan izena ematera lehen urratsa emateko, alabarekin duen elkarriketa batean euskaraz egitera animatzeko, edota Korrikan kilometro bat gehiago egitera sustatzeko balio badu, kantak bere funtsa beteko du”.

Behin aurkezpena eginda, bideoklipa proiektatu dute.

BIDEOKLIPA [HEMEN](#). Mesedez, zabaldu esteka hau.

Kantaren inguruko informazio gehiago [HEMEN](#).

#### **ARABA**

Arana kalea, 30  
01002 GASTEIZ  
946 464 000  
araba@korrika.eus

#### **BIZKAIA**

Txakur kalea 1, 4.a  
48005 BILBO  
946 464 000  
bizkaia@korrika.eus

#### **GIPUZKOA**

Iztueta kalea 3, behea  
20001 DONOSTIA  
946 464 000  
gipuzkoa@korrika.eus

#### **IPARRALDEA**

Marengo karrika, 22  
64100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
iparraldea@korrika.eus

#### **NAFARROA**

Errekoleta 16, behea  
31001 IRUÑEA  
946 464 000  
nafarroa@korrika.eus